

# sagardoaren txoko berria astigarragan

**S**agardoetxe berriaren atak gaur irekiko dira Astigarragan bisitariek zuku honen historia gertutik ezagut dezaten. Gure herriaren nortasunaren ezaugarri diren sagarra, sagarrondoa eta frutaren kulturaren igozle izateko jaio den gune berria 1.000 metro karratuko eraikin batean dago eta kanpoaldean sagasti eder bat dago. Honetan sagardoa ekoizteko azken teknikak erakusten dira eta baita Euskal Herriko historian zehar izandako barietateak ere. Panelak laguntzen dituzte sagastiak eta nahi duenarentzat bisita gidatuak ere antolatuko dira. Behin barnealdean sartuta, proposamen ezberdinak daude, ha-



JON URBE | ARGAZKI PRESS

la nola, sagarraren elaborazioa, nola jo eta zanpatu erakusten duten ikus-entzunezko eta panelak besteak beste. Ikuspuntu guztiz didaktikoa izango du Sagardun elkarteak bultzatu duen

proiektuak, sagardozaileen talde honen ametsa sagardoaren kulturari eskainitako museoa eraiki eta jendeari ezagutaraztea izan baita. Astigarragako kale nagusian dagoen eraikin honetan bar-

nako paseoa ezin hobeki amaitzeko, sagardo dastaketa eskainiko dute, mota eta ezaugarri ezberdinak dituzten edariak probatu ahal izateko. Badugu beraz, aurrerantzean, tolarako sagardoaren ekoizpenaren bihotza den herrian, euskal edariari omena egiten dion txoko interesgarria.

■ **Sagardoetxea museoa:** Kale Nagusia 48, Astigarraga. Prezioa: 3,5 euro dastaketa barne. Orduetgia: 11.00-13.30etara eta 16.00-20.00etara (ligande eta astelehenetan itxita). Urriaren 1etik apirilaren 30era, 15.00-19.30etara. Igandetan, 11.00-13.30etara (astelehenetan itxita).